

Jaun txit agurgarria

Getxoko hiritarrak gaituzu eta gure herrikide baten egoeraz kezkatuta gaude, Anjel Figuroa Fernandez presoaren egoeraz hain zuzen.

Utziguzu azaltzen, arren, Anjel Figuroaren osasun egoera:

Anjel Figuroak **gaixotasun larria eta sendaezina du**: epilepsia tenporala eta eskumaldeko esklerosi mesiala. Horren ondorioz krisialdi larriak izaten ditu, krisialdietan konortea galtzen du eta, tartean, absentziak, memoria galerak eta haluzionazioak izaten ditu.

Anjel Figuroak 13 urte daramatza kartzelan eta, gaixotasuna txikitatik duen arren, **espetxeko baldintzek areagotu diote gaixotasuna**, batez ere 2004an Kordobako espetxera eraman ondoren.

Kordoban zuen koadro klinikoa ikusirik, 2006ko maiatzean **ebakuntza egin zioten Gurutzetako ospitalean** eskumaldeko lobulu tenporalean baina, osatu beharrean, okerrera egin du harrezkero.

Gurutzetako ospitalean egin berri dioten azterketan, ezker aldeko lobulu tenporalean beste foku bat duela antzeman diote. Horrela, gaixotasunaren larria berrestez gain, sendatzerik ez duela ebatzi dute azterketa egin dioten medikuek. **Medikuek argi eta garbi esan dute Anjelen egoerak ez duela bueltarik.**

Kartzelak ez ditu betetzen bizi-baldintzak gaixotasun honekin bizi bermatzeko baina, hala ere, **administrazioak ukatu egin dio Kode Penalaren 92. artikulua aplikazioa**, hau da, ukatu egin dio gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoak baldintzapeko askatasunean kaleratzea aurreikusten duen legearen aplikazioa.

Guk uste dugu **osasun fisiko zein psikologikoa pertsona ororen oinarrizko eskubidea dela**, edozein kontsiderazio penal zein legalaren, eta edozein espetxe politikaren gainetik. Hau da, preso egonik ere, pertsona batek edozein euskal herritarren kalitate baldintza bereko osasun integraleko eskubidea duela. Beraz, preso guztiei dagokie osasun eskubidea, baita euskal preso politikoei ere.

Gaur egun **irizpide politikoengatik ez zaio Anjel Figuroari Kode Penalaren 92. artikulua aplikatzen**. Egoera politikoak markatzen du noiz dagozkien eskubideak euskal preso politikoei, gaixotasun larri eta sendaezinen kasuan **ondorio atzeraezinak ekar ditzakeen arren**.

Norabide honetan, gaixotasun larriak edota sendaezinak dituzten euskal preso politiko guztien askatasuna eta, zentzu honetan, eskubide hau arautzen duen legearen aplikazio zorrotza exijitzen dugu. **Anjel Figuroaren askatasuna exijitzen dugu.**

Horrexegatik sortu dugu **Anjel Kalera! herri ekimena**, Anjel Figuroaren gaixotasunaren nondik norakoak ezagutzera emateko eta soluziobideak bilatzeko.

Zuk duzun ardura politikoaren baitan eskatu nahi dizugu **gure aldarriak zure egin ditzazun**, eta eskura dituzun baliabideak erabil ditzazun Anjel Figuroa kaleratzeko eta bere osasun eskubidea bermatzeko.

Eskaera honi behar bezalako erantzuna emango diozulakoan, jaso ezazu gure agurrik zintzoena.



**Anjel kalera!
herri ekimena**

Telletxe kalea, 5 galeria
48991 Algorta-Getxo
tlf. 94460 7313

anjelkalera@euskalerrria.org
<http://anjelkalera.mundua.com>

PS.: Getxoztarren artean bildutako sinadurak eransten dira.